

Zumeako merkatariak



Andoaingo herria biziberritzen!



# Kantu liburuxka Txotx 2000

# Kantu liburuxka

# Txotx 2000



**AIURRI aldizkaria**

*Dr. Huizi 15. 1.esk - 20140*

*Andoain (Gipuzkoa)*

*Tel.: 943 300 732*

*Faxa: 943 300 731*

*larramendi@topagunea.com*

**ANDOAINGO HERRIA BIZIBERRITZEN**

*Aingurasutegi kalea:*

| | |
|---|---|
| Jauregi drogeria | 943-590257 |
| Leitz bizikletak | 943-300469 |

*Belabi kalea:*

| | |
|---|---|
| Txitibar taberna | 943-592804 |

*Kale Berria:*

| | |
|---|---|
| Alotz izoztuak | 943-590706 |
| Ana Mari belardenda | 943-592554 |
| Banco Guipuzcoano | 943-591058 |
| Comercial Beotibar | 943-591682 |
| Leizaran hortz klinika | 943-591286 |
| J.J. Jauregi haragitegia | 943-591154 |
| Txuri Beltz taberna | 943-593549 |

*Larramendi kalea:*

| | |
|---|---|
| Txalaka jatetxea | 943-591604 |

*Leizaran kalea:*

| | |
|---|---|
| Super B.M. | 943-591003 |

*Zumea kalea:*

| | |
|---|---|
| Allianz aseguruak | 943-300899 |
| Beraza okindegia | 943-592556 |
| Danena taberna | 943-591202 |
| Edredon *Todo para el hogar* | 943-592755 |
| Elizondo botika | 943-592629 |
| Ernaitza liburudenda | 943-592459 |
| Gaztelutxo taberna | 943-300862 |
| Hiru Anaiak gozotegia | 943-593777 |
| Orbel tabakoak | 943-591946 |
| Saldias arraindegia | 943-590704 |
| Sarasola ardoak | 943-590755 |
| Uranga taberna | 943-592857 |
| Uzkudun zapateria | 943-592457 |
| Xaximetro taberna | 943-300066 |

zumeako merkatariak

## GORA TA GORA BETI

Gora ta gora beti,
haik gora Lapurdi!
euskerak bizi gaitu
eta bizi bedi.
Gorantza doa agudo kapitala
eta Lapurdi bat dago apala
aldrebesturik dago mundu zitala.
Konformatzen ez bagara
ze pekatu mortala!
Gurea ez da bizimodu normala,
lurra lantzeko aitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen erreala,
benetan da miserable
euskaldunon jornala.
Munduan ezin bizi diteke hala,
merkatuetan dena gora doala,
etxera eta zopa guztiz aigala,
krisiluen olioa
ez da postre formala.
Torero eta nekazari leiala,
zuena ez da errentza liberala
zikinak putre motzak bezala
botatzen bere itzala.
jabeek dute kontzientzia zaala
kaskatu dute gure lurren azala,
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala
burruka garbian dago.
Hori da printzipala.



T x o t x 2 0 0 0

## HABANERA

Berriro itzuliko balitz iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake bainila gozo artean
itsaso urrun batean irudimena galdurik
udaberriko euritan larrosak pizten ikusiz
osaba komertzianterik ez nuen izan Habanan
pianorik ez zegoen bizi nintzen etxe hartan
neskatxen puntila finak udako arratsaldetan
errosario santua neguko gela hotzetan.

Ezpainek gordetzen dute ezpain bustien gustoa
desiozko hotzikarak etsipenaren tamalez
gaua zelatan dakusak kontzientzia bilutsik
badoaz ordu geldiak gogorapenen hegalez.
Jaio ginen bizi gera ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro kaiatik ari da urruntzen
Antillak zintzilik daude argazkien paretetan
karta bat idatziko dut norbaitek erantzun dezan.

Tabako, ron ta kanelaz sukartutako ametsetan
algarak entzuten ziren Habanako putetxetan
abanikodun mulatak gauari haizen egiten
musiken aire nagiek odola erretzen zuten.
Jaio ginen bizi gera ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro kaiatik ari da urruntzen
Antillak zintzilik dauden argazkien paretetan
karta bat idatziko dut norbaitek erantzun dezan.
(X.Lete)

## JAUN BARUAK

Jaun baruak aspaldin xederak hedatü zütin
txori eijer bat hatzaman dizü Paubeko seroren komentin,
orain harekin biziren düzü aspaldian gogun beitziri.



T x o t x 2 0 0 0

Xedera baliz halako merkatietan saltzeko
Ziberuako aitunen semek eros litzazkie oro.
halako txori eijertto zunbaiten hatzamaiteko.

Igaran apirilaren bürian, armadaren erdian,
züntüdan bihotzian, armak oro eskian:
presenten espiritian, manka beruen artian.

Jauna maite banaizü, eraiten düzü bezala,
kita ezazü, kita ezazu Erregeren zerbütxüa
eta maita herria, üken dezadan plazera.
(B.Lertxundi)

**XALBADORREN HERIOTZEAN**
Adiskide bat ba zen,
orotan bihotz-bera,
poesiaren hegoek
sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena.
Plazetako kantari
bakardadez josia,
hitzen lihoa iruten
bere barnean irauten
oinazez ikasia.

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana.
Hesia urraturik
libratu huen kanta,
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik.



T x o t x 2 0 0 0


# ETXEBERRIA
## TOLARE SAGARDOTEGIA
SAGARDOTEGI ZEHARRA, 5.
☎ 943 555697-670 533542
20115 ASTIGARRAGA



Urtarrilaren 14tik apirilaren amaiera arte zabalik.
150 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.
Urte osoan sagardo botilak salgai.



Eragiok mutil
aurreko danboliñari
gaztañak erre artean
Txipli, Txapla, Pun
gabon gaba pozik
igaro daigun

## TRISTE BIZI NAIZ ETA

Triste bizi naiz eta,
hilko banintz hobe
badauzkat bihotzian,
zenbait atsekabe.
maite bat maitatzen det,
bainan haren jabe
sekulan izateko
esperantzik gabe.
Bihotz baten lekuan
mila banintuzke,
guziak zuretzako
izango litezke.
baina milan lekuan
bat bertzerik ez det
har zazu bai maitia,
bat hau mila orde.
Neure maite pollita
nola zeran bizi,
zortzi egun hauetan,
ez zaitut ikusi,
uste det zabiltzala,
nigandik igesi
ez didazu emaiten
atsekabe gutxi!



T x o t x 2 0 0 0



Azken hatsa huela
bertsorik sakonena,
inoiz esan ezin diren
estalitako egien
oihurik bortitzena.
(X.Lete)

## AITORMENA

Ez dira betiko garai onenak,
azken finean gizaki hutsak gara,
barearen ostean dator ekaitza,
udaberri berririk ez guretzat.

Denborak aurrera etengabian
ta orain ezin eutsi izan ginana,
rutinaren morroiak bihurtu gara,
maitia lehen baino lehen
aska gaitezan.

Ohartu gabe arrunt bilakatuta,
ohartu gabe heldu gara mugara,
mundua jausi zaigu gainera,
maitia lehen baino lehen
aska gaitezan,
ez dakigu non dagoen hoberena,
bila dezagun beste lekuetan.

Bai zin dagizut ez dizudala
inoiz gezurrik esan eta
zaude ziur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz,
aitortzen dut izan zarela
ene bizitzaren onena
baina orain maitia lehen baino lehen aska gaitezan.
(Hertzainak)



T x o t x 2 0 0 0

## EPERRAK BADITITZU

Eperrak badititzü bere bi hegalak
bai eta bürün gainin kokarda eijer bat,
zük ere bardin bazinün gaztetarzün eijer bat,
neskatilen gogatzeko bilho holli pollit bat.

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe,
gaiaz ebiltia ez üken erhabe,
egünaz ebiltia desohore leike
txoriak ere oro haier so dirade.

Ebili izan nüzu gaiaz eta beti,
deia atzemanen nianez lili eijer hori,
azkenian atzeman düt oi, bena tristeki,
lumarik eijerrena beit zaio erori.

## ATARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA

Ozaze Jaurgainian bi zitroin doratü
Atarratzeko Jaunak bata dü galdatü;
üken du arrapostü eztirela huntü,
unttürik direnean batto ükenen du.

Portaliala juan zite, ahizpa maitia,
ingoiti horra düzü Atarratzeko Jauna,
otoi erran izozü ni eri nizala,
zazpi egün hoietan oihan nizala.

Klara, zuaza orai salako leihora,
ipar-ala egua denez jakitera,
iparra balinbada goraintzi Salari,
ene korpitzaren txerka jin dadila sarri.



T X O T X 2 0 0 0

## MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN

Maitiak galdegin zautan pollit nintzanez (berriz)
pollit, pollit nintzela bainan
larrua beltz, larrua beltz.

Maitiak galdegin zautan premu nintzanez (berriz)
premu, premu nintzela bainan
etxerik ez, etxerik ez!

Maitiak galdegin zautan moltsa banuenez (berriz)
moltsa, moltsa banuela bainan
dirurik ez dirurik ez!

Maitiak galdegin zautan
lanean nekienez (berriz)
lanean, lanean nekiela bainan
gogorik ez, gogorik ez.

Gaixoa hil behar dugu guk biek gosez (berriz)
gosez, gosez ez naski bainan,
elkar maitez, elkar maitez!

## HATOR, HATOR

Hator, hator, mutil etxera
gaztaña ximela jatera
gabon gaba ospatutzeko
aitaren ta amaren onduan.
Ikusiko duk aita barrezka
ama ere poz atsegiñez.

T X O T X 2 0 0 0

## MARITXU NORA ZOAZ...

- Maritxu nora zoaz, eder galant hori?
- Iturrira, Bartolo, nai badezu etorri.
- Iturrian zer dago? Ardotxo zuria;
Biok edango degu nai degun guzia.

- Maritxu, zuregana biltzen naizenian,
poza nabaitutzen det nere barrenean.
- Bartolo, nik ere det atsegin artutzen,
ur billa noanean, banauzu laguntzen.
- Maritxu, baldin asmo badezu ezkontzea,
lendabiziko nitzaz oroitu zaitia.
Zure mende jartzen naiz denbora guziko,
Bartolokin ez zera gaizki eroriko.

## GUK EUSKARAZ

Guk euskaraz
zuk zergatik ez?
Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen (bis)
eta zuek denok
ur gazi bat
atera zenuten
handik nekez.

Guk euskaraz
zuk zergatik ez?
Orain zuen birtutez
zuen indarrez (bis)
euskara
itsaso urdin eta
zabal
bat izanen da
eta geuria da.
(Urko)





**Aiurri aldizkaria**
Beterri-Aiztondoko
hamabostekaria
HARPIDE EGIN ZAITEZ!
☎ 943 300732




T x o t x 2 0 0 0



Ama, juanen gira oro elkarreki,
etxerat jinen zira xangri handireki,
bihotza kargatürik, begiak bustirik,
eta zure alaba tunban ehortzirik.

Ama, saldu nauzü biga bat bezala,
bai eta desterratü, oi Españiala
aita bizi üken banu, ama, zü bezala
enundunün ezkündüren Atarratzeko salara.
(B.Lertxundi)

## NAFARROA, ARRAGOA

Nafarroa, arragoa
argiaren pausaleku
haizearen ibil-toki zabal,
hesirik gabea.
Nafarroa, arragoa,
sua eta ura,
kondaira urratu baten
oihartzun oihukatua.
Amets bat baino gehiago,
ez oparatasun osoa:
nahiaren eta ezinaren
burrukatoki ekaitzez betea.

Nafarroa, arragoa
mahats eta gari
maitasun eta gorroto
gezur eta egia gurea
Nafarroa, arragoa,
lurberoen sabel emankorra
eta goiko mendi mendetako loa.

T x o t x 2 0 0 0

Nafarroa, zuhur eta eroa,
lurrik maitatuena,
hormarik gabe utzitako etxea
erreka gardenen negarrez
ibai lodietara ixurtzen ari den
odol bustikorraren iturri bizia.

Nafarroa, arragoa
izan gat eta oinarri eta oinaze
eta bidean zure bila ibiltzea...
Pinudiek usaintzen dituzten
harri xigorrezko bidetan gora
O, Nafarroa, Nafarroa betikoa.
(X.Lete)

**KATTALIN**
Etxe txiki txukun baten
zure aitetamekin
zinen bizi, zintzo bizi
ene maite Kattalin.
Baina eder zinen zinez
zine-izar bat bezin
ile gorri (baita zorri)
zuk ba zenun kattalin
Ibaiera zinen joaten
zure ahate beltzekin
goiz batean, bat batean
ito zinen Kattalin.
Hilerrian ba da lore
euski lili, krabelin
zu zaituzte ba dut uste
ongarritzat Kattalin.
Ene maite, ene maite, ene maite Kattalin
sekulako ta betiko galdu zaitut Kattalin.



T x o t x 2 0 0 0



MARTXETAUNDI SAGARDOTEGIA
☎ 943 692222 BEBALLEA AUZOA 11 ASTEASU
*Nagusia: Aranburu sendia*
*Sagardotegi eta erretegi moduan urte osoan zabalik, astelehen gauean ezik.*
*100 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*
*Berezitasuna: Etxeko haragia.*
*Astelehenetik ostiralera eguneko menua.*



edan gabe ez utzi:
i, i, i, ardoak gaitu bizi.
O, O, O, au biontzako dago.
Edan dagigun oro
nik orain ta zuk gero:
o, o, o, au biontzako dago.

U, U, U, ardoak galdu gaitu.
gehiegi edan dugu,
lurra igaro dugu:
u, u, u, ardoak galdu gaitu.

**MARIA MARIKITA**
Hamabost, hamasei urte,
neskatxak zer dakizute?
erromeria buruan,
beste gauzik ez dezute
neskatxak zer dakizute?
Hamazortzi, hemeretzi,
ezin ondo erakutsi.
Festarako beti gertu,
lanerako gogo gutxi
ezin ondo erakutsi.

Hoge eta zazpi, zortzi urte,
nobiorik ba al dezute?
Hogei eta hamaika, hamabikin.
hortan dudarik ez egin,
datorrena, datorrela
konforme edozeinekin
hortan dudarik ez egin.



T x o t x 2 0 0 0


# TXERTOTA

**TOLARE SAGARDOTEGIA**
**SAN ESTEBAN AUZOA**
**☎ 943 590721 ANDOAIN**



*Sagardotegi garaian txotxetik!*

*150 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*

*Urte osoan zehar jatetxe nahiz nekazalturismo moduan, zabalik.*

*Nekazalturismo etxeak sei logela ditu dagokion bainugela eta telebistarekin.*

*Igande gauez eta astelehenetan itxita.*

## ITZIARREN SEMEA

Itziarren semea: hori duk mutila!
nihor salatu baino nahiago du hila
harro egon litake maji neskatila,
espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatila!, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!
Haurra zer egin haute holan agertzeko?
Ama jo egin naute mintza arazteko!
Izenik eman al duk? Esantzak egia!
Ez ama, ez dut eman! Jali naiz garbia!
Jali haiz garbia? Bai, ama, egia!
Ta amak eskaini zion klabelin gorria...
Zazpi gizon nituen joka inguruan
makilaz hartu naute ostikoz lurrean
baina nik ez dut eman lagunen izenik!
Ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
lagunen izenik ez baitut eman nik
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Lau aldiz sartu naute urean burua
zangotik euki naute zintzilikatua
bainan nik ez dut eman lagunen izenik
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Zangotik zintzilik, ni beti ixilik!
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Itziarren semeak
ez du laguna salatzen
eta zakurren aurrean
tinko ta ixilik egoiten
espetxerat igorri dute,
amak ez du ezagutu
ta majik, pulliki pulliki
eman diozka bi musu
(T.Monzon-Pantxoa ta Peio)



T X O T X 2 0 0 0

edozein herriko jaixetan.
Felix felix
bihar berriz egongo gara
txanpaña kopa batekin;
diru gabe
baina izarrak gurekin daude
piano baten soinuaz.

Lau teilatu gainean
ilargia erdian
eta zu, goruntz begira.
zure kea eskuetan
bultzada batekin bultz,
berehala etorriko da
ta berriz izango gara
zoriontsu
edozein herriko jaixetan.
(Itoiz)

## ARDO GORRI NAPARRA

A, A, A, ardo gorri naparra
alimentu ona da,
edan al balin bada;
a, a, a, ardo gorri naparra.

E, E, E, ni ardoaren alde.
Edan ardura gabe,
balin bada debalde;
e, e, e, ni ardoaren alde.
I, I, I, ardoak gaitu bizi.
Noizik bein ongi busti



T X O T X 2 0 0 0

## LAU TEILATU

Hemen gaude
ta poztutzen naiz
ta ziur zure aita ere bai.
Ta zer ondo
zelan dijoa
zure bufanda txuria.

Lau teilatu gainean
ilargia erdian
eta zu, goruntz begira
zure kea eskuetan
bultzada batekin bultz,
berehala etorriko da
ta berriz izango gara
zoriontsu
edozein herriko jaixetan.
Goxo-goxo
kanta egin nazu
Benitoren "Maria Solt",
negarrik ez,
zuri zaude eta malkoek
zure kolorea kentzen dute.

Lau teilatu gainean
ilargia erdian
eta zu, goruntz begira.
zure kea eskuetan
bultzada batekin bultz,
berehala etorriko da
ta berriz izango gara
zoriontsu



Txotx 2000



## GIZON ARRUNTAREN KOPLAK

Kantatzera noazu
bertso bat edo bi
herenegun jarriak
gizon arruntari,
Antonio, Lorentxo
edo Jose Mari
gauza ederra denik
ez ukatu neri.
Goizean jeikitzean
lehenbiziko gauza
ahoa zabaldu eta
jazten ditut galtzak,
muturra garbitzean
nolako zalantzak,
ezin kendurik nabil
loaren orratzak.
Kafesnea hartuta
horrekin batera,
ahal baldin badut behintzat
noa komunera
aurrean papera ta
atzean papera
periodikoa letuz
ilustratzen gera.
Etxetikan lanera
noa nahiko mantxo,
Realak kuatro-uno
galdu zuen atzo,
kalean bi zakur ta
beste hiru atso,
egun on Don Pepito
eta Don Alfontso.
Gauzak gaizki dabiltza
hau da komeria
Afganistanen gerra



Txotx 2000

piztu zuten ia,
tokatzen baldin bazait
aurten loteria,
erosi beharko dut
Citroen berria
ongi egon omen zen
Tolosan peria.
Ni lana egina naiz
semeak hazteko
haiek eskola ona
xuxen ikasteko
ikasi eta gero
lanean hasteko,
ez ditezela izan
bazterrak nahasteko.

Semeen semeetatik
baidatoz semeak,
batzuek arrak eta
besteak emeak,
batzuek lodiak ta
beste batzuk meheak,
honela jarri zuen
jaunaren legeak.
Ez naiz ni gizon txarra
baina zer arraio!
Fidel Castro izateko
ez bainintzen jaio,
musean egiten dut
makina bat saio,
andrearen ondoan
afaldu dut jaio
orain ohera noa
bihar arte aio.
(X.Lete)




Txotx 2000

# MIZPIRADI

**TOLARE SAGARDOTEGIA**

**MIZPIRADI BASERRIA ☎ 943 593954**

**LEIZOTZ AUZOA-ANDOAIN**








*Nagusia: Anjel Arruabarrena*

- *Urtarrilaren 22tik aurrera zabalik.*
- *Txotx garaian soilik.*
- *60 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*
- *Astean zehar gauean zabalik, baita larunbata eta igande eguerdietan ere.*
- *Igande gauean itxita.*

## ALDAPEKO

Aldapeko sagarraren adarraren puntan
Puntaren puntan,
Xoria zegoen kantari:
Xiru-li-ruli, xiru-liru-li,
Nork kantatuko ote du kantutxo hori.
Zubiburu zelaieko oihanaren zolan,
zolaren zolan,
Lili bat bada beilari!
Xiru-liru-li, xiru-liru-li,
Nork bilduko othe du lili xarmant
mende huntan jasan dutan bihotzeko
Penaren, pena
Nola behar dur ekharri?
Xiru-li-ruli, xiru-liru-li,
Zuk, maitea, har-zazu ene pena hori.

## OI AMA ESKUAL HERRIA

Anaia etxen da ezküntü
bükatu niz oain joaitera
ene opilaren egitera
Pariserat banúazu.
Oi ama Eskual Herri goxua
zutandik urrun triste banüa
adios gaixo etxen dena
adios Xiberua.
Pariseko bizitzia
lan kostüzüriaz bagiazü
bena berantzen zütadazü
zure berri ikustia.
Oi ama...
(B.Lertxundi)



T x . o . t x 2 . 0 . 0 0




# ABURUZA

**TOLARE SAGARDOTEGIA**
☎ 943 692452-943 692153
**ADUNA**

*Nagusia: Juan Jose Aburuza*

*Urtarrilak 14tik iraila bukaerarte zabalik.*

*200 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*

*Berezitasuna: Makailu frijitua piperrekin.*

**TXALAPARTA**
Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi,
xurruxumurru
bat batean dira urrum,
tiriki-trauki
ezker eskubi
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor lehio sare
hiru ta lau dira bi...
hiru ta lau dira... bat.
(Txalaparta)

**NERE HERRIKO NESKATXA MAITE**
Nere herriko neskatxa maite
ahozko lorez zaitut gaur laztantzen
itsaso garden, lur gozoko landare,
kresalaren usain, zeru kolore
nere bihotzaren taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen.
Bihotz minberen egunsentia
herri sufrituaren lamia
ipuin zaharren piper eta eztia
erreka garbien kantu bitxia
udazken lizunez zaude jantzia
izar zerutarren irria.
Lanbro artetik itsas geldira
lehunki zoazen txori airosa
amodiozko sentipenaren hatsa
zure ezpainetan loratuz doa
goizeko ihintzetan belardi zera
Eguzkitan zilar dizdira.
(B.Lertundi)



T x o t x 2 0 0 0


# ELUTXETA

**TOLARE SAGARDOTEGIA**

**OZTARAN BAILARA**

☎ **943 556981 URNIETA**



*Nagusia: Juan Joxe Urruzola*

- *Urte osoan zabalik sagardotegi eta erretegi moduan.*
- *Astelehenetan itxita.*
- *Umeentzako jolastokia.*
- *200 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*
- *Berezitasuna: Bufalo okela, urtarrilaren 18tik agortu bitarte.*



**IXIL IXILIK DAGO**

Ixil ixilik dago, kaia bazterrian
Uso xuri polit bat uraren gainean.
Goizek'ordu bietan esnatutzen gira
Arrantzaliarekin joaitek' urrutira.
Pasatzen nintzanean zure leiho petik
Nigar'heldu zitzautan begibietatik:
Zergatik (5 aldiz) nigar egin?
Zeruan izarra dago itsaso aldetik.
Bat, bat, bat, bazter ondoan ibili.
Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili.
Hiru, hiru, hiru, golkoa bete diru.
Lau, lau, lau xardin ta bakalau.
Anteru txamarrotia,
Frankoren bibotia,
Aretxek ez dauka,
Preso Euskal Herria.

**BAGARE**

Araban bagare
Gipuzkoan bagera
Zuberoan bagire
ta Bizkaian bagara,
baita ere Lapurdi ta Nafarra.
Guztiok gara euskaldun
guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.
Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeniz
ez daigun utzi hondatzen.
Bagare, bagera
bagire, bagara
euskara askatzeko
oraintxe dugu aukera.
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera.
(G.Mendibil-Xeberri)



T x o t x . 2 0 0 0




ZABALA
tolare sagardotegia

Nagusia: Ramon Zabala

- Urtarrilaren 3tik apirilaren 30a bitarte, zabalik.
- Bertan egindako sagardoa.
- 150 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.
- Gauero zabalik, larunbata eta igande eguerdietan enkarguz soilik.
- Berezitasuna: Sagardoa.

## O GU HEMEN

O gu hemen, bidean galduak
o gu hemen, bidean galduak
o gu hemen, bidean galduak
heriotz minez (bis)
Gizonen itzala luzea
negarrez haizea gauean
arbolak erroak aidean,
heriotza da.
O gu hemen...
Pobreak kalean bilutsik
barnea esperantzarik gabe
doinuak basoko tristuran
ilunabarrez.
O gu hemen...
Mundikan ezinaren mina
zergatik errekan iluna,
egurra kolpeka landua,
bide hustuak.
(Ameslariak)

## MARIA SOLT ETA KASTERO

Maria Solt eta Kastero
bi amoros zahar bero.
Hirurogei-hamarna urtetan hartü die amorio
Kastero jelostü gero Maria Solt ezari kanpo.

Mari solta dua nigarrez
izorra dela beldürrez.
Barnets-Bordako anderiak kontsaltü du elez,
emate zaharrik oküpü agitzen ez dala ez.



T x o t x 2 0 0 0

leloa, zarai leloa.
Euskara da kanpora
eta goazen denok dantzara.
(B.Etxepare)

## VIOLETAREN MARTXA

Gure Violeta maitea
dantzan egizu martxea,
han eskuineko ankea
bai eta gero bestea.
Begira euskal jendea,
bihotza pozez betea,
apurtzen berdin katea
eta zapata parea.
Sekulan ez nun uste nik
hain aldakorra zinenik,
Ameriketan sorturik
gure aldera sarturik
Munduan ez da besterik
han baino, ederragorik
nola egon jakin barik
hil eta gero bizirik.
Hauxe da martxa alarguna
oso gutxitan entzuna
nahiz ta Txilen famaduna
zuk ziur ez dakizuna,
Violeta Parra laguna
kantari oso ezaguna,
gaurik erdi euskalduna
da soinu hau egin duna.
(Oskorri)



T x o t x 2 0 0 0

## SAUTRELA

Euskara da kanpora,
eta goazen denok dantzara.
O euskara lauda ezak
Garaziko herria,
zeren handik hartu baituzu
behar zenuen grazia,
Lehenago zu baitzinen
hizkuntzarik azkena,
orain berriz izango zara
guztietan lehena.
Euskaldunak edonondik
preziatuak ziren,
baina haien mintzaeraz
denak ziren burlatzen,
inongo liburuetan
eskribitzen ez baitzen;
orain ikasiko dute
nola gauza ona zen.
Euskalduna den guztiak
burua altxa beza
gorenean ikusiko
baitu bere hizkuntza;
Printze eta jaun guztiek
hura eskatzen dute,
paperetan ikusita
ikasi behar dute.
Gogo hori kunplitu du
Garaziko gizonak
eta haren adiskide
Bordelen dagoenak.

Lehen inprimatzailea
Euskararen hura da,
euskaldunak eskerturik
aurkitu behar gara.
Etai, lelori, bai lelo





Maria Soltek arrapostü
Santa Elisabel badüzü.
Saintu zahar bateganik oküpü agitü düzü
Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü.

Kastero eztüzü saintü
sobera bürhaüti düzü.
Elizalat juan eta tabernan egoiten düzü
Kastero denagatik saintü, Maria Solt antzü zira zü.
(B.Lertxundi)

## FURRA-FURRA

Furra-furra fandangoa
hortxe duzu fandangoa
geure gustokoa.
Gaur goizean jeiki naiz
suerte onean,
tanke bat topatu dut
neure kafesnean
ez dakit zer daukagun
bake ala gerra,
baina nik badaezpadan
egin dut puzkerra.
Zerbait egitekotan
zuzen eta artez,
zorri bat garbitu dut
ur pistola batez
orain galdurik nago
beldurrez beteta,
muniziorik gabe
gelditu naiz eta.



Txotx 2000

Neure arma bakarra
dut akordeoia,
hauspoari eraginez
dirudi lehoia,
eskua jaten badit
on egin dezaion,
Cervantesi holakorik
gertatu zitzaion.
Eta orain banoa
berriro ohera,
bila ez badatozkit
lolo egitera,
bihar ikusiko da
zer dagoen berri,
jakintsuenak ere
ezin du igerri.
(Oskorri)

**ERROTA ZAHAR MAITEA**

Errota zahar maitea
uraren ertzean
uraren ertzean da
basati beltzean.
Negar egiten duzu alea txetzean
ni ere triste nabil zutaz oroitzean.
Zotin sekua dagi errotarriak
itzalitako izar dizdirak
dira niretzat zure begiak.







Bihotzan erditik
bortzetan elki daitadazut hasperena.
Zu utzi geroztik
bizi naiz tristerik
abandonaturik,
ez baita herririk
Paris ez bertzerik
zu bezalakorik.

Agur, Xiberua...
Sorlekua utzirik gazte nintzelarik,
Parisen sartu nintzen korajez beterik,
plazerez gose eta buruan harturik
behar nuela alegera bizi.
Bortzetan geroztik
nigar egiten dit
Xiberua zuri.
Agur, Xiberua...
Palazio ederretan gira alojatzen
eta segur goratik aire freska hartzen.
Gain behera so eginik baitzait iruditzen
Orhin gainean nizala agitzen.
Baina ez dira hemen
bazterrak berdatzen,
txoriak kantatzen!
Agur, Xiberua...
Ametsa, lagun nazak ni Atharratzera
ene azken egunen han igaraitera,
Orhiko txoriaren kantuz behatzera
barka ditzan nik egin negarrak.
Hots, xiberutarrak,
aintzinean gora
euskaldun bandera!

## EGUN DA SANTI MAMIÑA
Egun da Santi Mamiña
benetan egun samina.
Goiko zeruak gorde dezala
luzaro neure arima.

Esanen dizut egia
hau ez da usategia
erroi artean izan nintzaden
benetan ausartegia.

Itxas aldean izarra
hari begira lizarra,
euskera salbo ikusi arte
ez dut moztuko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak
argitzen dira belarrak
Ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskal Herriak diotsa
solomo luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta
ken berriz nahigabeak
esan noiz garen izanen gure
etorkizunen jabeak.

## AGUR, XIBERUA
Agur, Xiberua,
bazter guzietako txokorik ederrena
Agur, sorlekua,
zuri ditut ene ametsik gozoenak.



T x o t x 2 0 0 0


# SARASOLA
## TOLARE SAGARDOTEGIA
☎ 943 690283-943 652622 ASTEASU




*Nagusia: Ignacio Sarasola*
*Urtarrilak 8tik maiatza bitartean zabalik.*
*Bertan egindako sagardoa.*
*200 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*
*Egunero zabalik, gauez.*
*Larunbata eta jai egunetan, eguerdian irekita!*
*Berezitasunak: Makailu frijitua eta txuletak.*

## EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz.

Bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri askara.

Geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara.
Geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik
behar duguna.

Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?



TXOTX 2000

Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena?
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?
(Oskorri)

## ERRIBERA

Erribera, Erribera
zure landen zabalera
ortzi-muga den hartan
mugatzen da.

Zure lur emankorretan
isurtzen diren asmoak
gogotsu hartuko al ditu
lur gozoak?

Zure gaztelu zaharrek
gorderik duten aintzina
hats trestetan mintzo da
haren mina.

Orma zahar arraituetan
xoriak dira kantatzen,
mendetako lo geldia
salatzen.

Nafarroa anaia zaharra
kondairaren lehen zuztarra,
bego higan arbasoen
amets hura.





TXOTX 2000